



EUSKALGINTZAREN LEKUKOAK

zta
baida

Joxe Manuel Odriozola 0 0 6

kar

ezta
baida

006

Euskal identitatearen eta euskaltasunaren krisia Estatu modernoaren izaera nazional totalitarioak eragindako hondamendi orokorrean kokatzeko eta ulertzeko saio bat da liburu hau. Azken mendeetan Mendebaldetik mundu osora zabaldu diren egitura nazionaletako gehiengoaren ideologiak zuritu du batzuetan genozidioa eta besteetan etnozidioa izan den txikizio unibertsal hori, Estatuari darion boterearen eta indarraren monopolioari esker. Egilearen ustez, euskal izatearen krisiak eta hiltzeriak ere goiko testuinguru zabal horretan bakarrik hartzen dute esanahi eta sentidu betea.

Azken hamarkada hauetan euskalgintzan jardun duten euskaltzaleen pentsamendua bildu eta ideia horiek elkarrizketan jarri ditu Odriozolak. Euskalgintza, izatez, ikuspegi askoren emaitza denez, horien guztien arteko aldeak, habardurak eta kontraesanak nabarmentzen ditu, euskal identitatearen ardatzean gorpuzten den mugimenduaren, gizarte osoaren eta nazio-erakuntzaren arteko harremanak eta sokatira antzetzuz.

Euskal Herriaren oinarri nagusia euskal hizkuntza dugu, duda gutxi horretan, baina hizkuntza horrek Euskal Herriko gizartearekin dituen eta izan beharko lituzkeen hartu-emanak buruz arras iritzi kontrajarriak ageri zaizkigu euskalgintzaren baitan. Azken urteotako esperientziaren argitan, argi dago borroka politikoaren alorrean diharduten eragileek ez dutela gaitasunik erakutsi euskal nortasunaren arabera Euskal Herririk eraikitzeko, baina, era berean, euskal botererik gabeko euskalgintza umezurtz dakusagu, azken gertakari bortitzetan begi bistakoa den moduan.

ISBN 84-9783-106-3



9 788497 831062



elkar